


**ALIRI BASERRIA
A MAILA****ALIRI BIDEA 40 (TXAKURTXULO)****Egile eta data ezezagunak****Deskribapena**

XVI. mendekoa da eta estrategikoki kokatuta dago, Zubieta Donostiarekin elkartzen zuen zubiaren ondoan. Oinplano nabarmen karratukoa da, eta behe oinaz, lehen oinaz eta bigarren oinaz osatzen da. Azken horrek estalkipeko erdialdea hartzen du. Alboko karrerapea ondoren erantsitakoa da. Fatxada nagusiraino iristen diren egiturazko hiru hormartetan banatuta dago. Horiek pilareak eta bilbaduraren piezakatzea erakusten dute. Fatxada horren irudi adierazgarriena bilbaduraren marrazkian eta geometria deformatuan dago. Haren horma atalak bistako eta zarpiatutako zenbait motatako harlangaitzez, eta trikotez ere beteta daude. Fatxada horretan, era berean, teilatu hegala azpiko habeen irtenguneak nabarmentzen dira, bai eta goiko aletegiko erdiko balkoiaren soluzio mota ere.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Interes historiko-artistikoko probintzia monumentu deklaratu izanaren ondoriozkoa –1964-1-17ko Ministro Aginduaren bidez (52. BOEa, 1964-2-29koa)– eta "Santiago bidea" multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa (halakotzat deklaratu zuten urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez).
- * Eragindako ingurunea: deklarazio horietan ezarritakoa.